

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2022 Foru Dekretua, irailaren 27koa. Onespena ematea Kontseiluaren abenduaren 21eko 54/2021 Foru Dekretua aldatzeari, zeinaren bidez onetsi baitziren Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak, bai eta 2022rako bigarren deialdiari ere

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 21eko 54/2021 Foru Dekretuaren bidez, Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak onartu ziren. Era berean, 2022ko etorkizun handiko kirolariak izendatzeko deialdia onartu zen.

Urtebeteko indarraldia izan ondoren, eta 2023an ondorioa izango duen deialdiari begira, Arabako Lurralde Historikoan egiten diren kirol-modalitateen kasuistika ezberdinek, kirol-federazioek beren lehiaketetan egiten dituzten aldaketek eta hiru Foru-Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean irizpideak koordinatu beharrak, haiek homegeneizatzeko helburuarekin, aipatutako Foru Dekretuaren I. eranskinaren 2. artikulua berridaztea eskatzen dute. Artikulu horrek definitzen ditu hautagai berriei etorkizun handiko kirolari izendapena emango dieten kirol-merezimenduak.

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak gaituta, zeinak 5.f artikuluan ezartzen baitu lurralde historikoetako foru-organoei dagokiela, beren lurralde-eremuan, goi-mailako kirolean sartzeko itxaropena duten etorkizun handiko kirolariei laguntza teknikoa eta laguntza ekonomikoa ematea, Arabako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 21eko 54/2021 Foru Dekretua aldatzea, lehen aipatutako alderdietan.

Beraz, proiektatu den Foru Dekretuaren xedea da Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak aldatzea, eta deialdi berria onartzea, Arabako Foru Aldundiak edo Kirolaraba Fundazioak edo beste edozein erakunde publikok edo pribatuk kolektibo horrentzat garatzen dituzten laguntza-planetan sartzeko aukera izan dezaten, eta haien aplikazio praktikoa hobetu dadin.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak bete dira.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko oinarri arautzaileak onartzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 21eko 54/2021 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 2. artikuluan honako aldaketa haiek egitea, eta honela idatzita uztea:

"2. artikulua. Eskatzaileak eta onuradunak

1. Honakoek eskatu ahal izango dute etorkizun handiko kirolari izendatzeko:

a) Arabako kirol federazioek edo federazio horiei egotz dakizkiekeen funtzio publiko eskuordetuak betetzen dituzten Arabako beste erakunde batzuek.

b) Egoitza soziala Araban duten kirol klubek.

c) Artikulu honetako 2. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kirolariek.

d) Artikulu honen 2. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kirolari adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak.

2. Honako baldintza hauek betetzen dituzten hautagaiak izan daitezke Arabako etorkizun handiko kirolariaren aitortzaren onuradun:

a) Arabako kasuan kasuko federazioaren indarreko lizentzia egiaztatzea, hautagaitza aurkezten den urte edo denboraldikoa eta Euskadiko kirol federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean eta ondorengo aldaketetan jasotako kirol modalitate eta diziplinetako edozeini dagokiona.

b) Urtero argitaratzen den deialdian ezartzen diren urteetako batean jaioa izatea.

c) Etorkizun handiko kirolariak izendatzeko urteroko deialdian ezarritako epean jarraian aipatzen diren kirol merezimenduetako bat lortzea:

– Banakako diziplinak:

Bakarkako merezimenduak baino ez dira kontuan hartuko; hau da, ez da aintzat hartuko taldeko zenbait parte hartzailearen sailkapenaren baturaren emaitza den sailkapena.

Kirolariak parte hartu duen probaren sailkapen orokorrak egiaztatuko du kirol-merezimendua lortu izana. Sailkapen orokor horretatik ateratako sailkapena (adinaren, kategoriaren eta abarren arabera partziala) ez da baliozkoa izango.

Modalitate edo diziplina olinpikoetan, edozein arrazoi dela-eta, olinpikoa ez den diseinua duten probetan kirol-merezimendua lortzen bada, kirol-merezimendu hori ez-olinpikotzat hartuko da.

1. Titulu ofiziala lortzeko nazioarteko lehiaketan parte hartzea, parte hartze hori alde aurreko sailkapenari lotuta badago. Artikulu honen apartatu honetan nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko ezartzen diren irizpideak bete beharko ditu parte hartze horrek.

2. Kirol olinpikoetan, Espainiako txapelketan 1., 2. edo 3. postua lortzea. kirol ez olinpikoetan, Espainiako txapelketan 1. edo 2. postua lortzea. Gimnastika erritmikoan, lehen kategoriako kirol merezimenduak edo ohorezko hautaketa merezimenduak hartuko dira kontuan, banakakoetan zein taldekoetan.

3. Estatuko modalitatearen hautaketarekin kontzentrazioetan edo teknifikazioetan parte hartu izana. Honako hau hartuko da halakotzat: autonomia-erkidego desberdinetako kirolariek parte hartzen duten Espainiako federazioak egindako deialdi ofiziala, zeinaren helburua hautaketa horrekin lehiaketaren bat prestatzea baita.

4. Olinpiadetan edo munduko txapelketetan sartzeari ahalbidetzen duten lehiaketetan parte hartzea.

– Talde diziplinak:

Estatuko modalitatearen hautaketarekin kontzentrazioetan edo teknifikazioetan parte hartu izana. Honako hau hartuko da halakotzat: autonomia-erkidego desberdinetako kirolariek parte hartzen duten Espainiako federazioak egindako deialdi ofiziala, zeinaren helburua hautaketa horrekin lehiaketaren bat prestatzea baita.

– Talde eta banakako diziplinak:

1. Herri kirolen modalitatearen kasuan, parekatu egingo dira, ondorio guztietarako, euskal selekzioarekin parte hartzea eta estatuko selekzioarekin parte hartzea.

2. Euskal pilotaren modalitatean, profesional aurreko kontratua izatea.

3. Kirol merezimenduak aurrekoez bestelako kirol lehiaketetan lortutako emaitzen bidez egiaza daitezkeen diziplinetan, Foru Dekretu honen 6. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako balorazio batzordeak emaitza baloratuko du kirol garrantzia kontuan hartuta, eta, nolana ere, beharrezkoa izango da modalitatearen Arabako lurraldeko kirol federazioak egindako txostenaren bidez egiaztatzea.

4. Honako hauei buruzko informazioa emango da:

a. Titulu ofizialik lortzen ez den nazioarteko lehiaketetan parte hartzea. Artikulu honen apartatu honetan nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko ezartzen diren irizpideak bete beharko ditu parte hartze horrek.

- Hipika modalitatean ez dira kontuan hartuko CSI kategoriako edo beheragoko txapelketak.

b. Estatuko errekorra haustea.

5. Balorazio batzordeak nazioarteko lehiaketako parte-hartzea baloratu ahal izateko, lehiaketa horrek bi baldintza hauek bete beharko ditu:

a. Estatuko selekzio bat edo Basque Country ordezkatzeko Munduko edo Europako txapelketetan, edo, hala badagokio, nazioarteko federazio baten, Europako federazio baten edo nazioarteko liga profesional baten egutegi ofizialean sartuta dauden liga profesionaletan, betiere EAEko modalitate eta diziplinen katalogoan onartuta badago.

Pilotaren kasuan, jarraian zehazten diren lehiaketetan parte hartzea nazioarteko parte-hartzetan hartzen da, eta ez da beharrezkoa izango hurrengo b) letran adierazitako baldintza betetzea:

- Euskal pilotako Nazioarteko Federazioa (Estatuko selekzioarekin parte hartzea).
- Euskal pilotako Nazioarteko Konfederazioa (Euskadiko selekzioarekin parte hartzea).
- World handball council (Euskadiko selekzioarekin parte hartzea).
- Munduko pilota batzarra (Euskadiko selekzioarekin parte hartzea).

Herri-kiroletan, nazioarteko parte-hartzea Munduko edo Europako Txapelketan egitea izango da, euskal selekzioaren ordezkari gisa, eta ez da beharrezkoa izango hurrengo b) letran adierazitako baldintza betetzea.

b. Gutxienez 5 herrialde ordezkatuta egotea.

3. Ezin izango dira etorkizun handiko kirolarien izendapenaren onuradun izan honako egotzaren batean dauden pertsonak:

a) Administrazio bidean zehapen irmoa izatea, dopin arloko arau-hausteagatik.

b) Kirol diziplinaren arloan arau-hauste oso larria egiteagatik zehapen irmoa izatea.

c) Bazterkeria egoera hauetakoren batean egotea:

– Etorkizun handiko kirolariak izendatzeko deialdiak dakartzen betebeharrak ez betetzea, eskaera egin baino lehen.

– Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 11/2016 Foru Arauaren IV. titulu aipatzen diren arau-hausteengatik zehapena jaso izana, edo sexu diskriminazioagatik zehapenean ezarritako aldiaren, Eusko Legebiltzarraren emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen duten bezala.

d) Goi-mailako kirolari izaera indarrean izatea urtero egiten den deialdian adierazten den aldiaren."

Bigarrena. Arabako etorkizun handiko kirolariak izendatzeko deialdi berri bat onartzea. Izen-dapen horiek 2023an izango dituzte ondorioak, honako ezaugarri hauekin:

– Eskaerak aurkezteko epea eta tokia: deialdi hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera hamar egun baliodun. Eskaerak modu hauetako batean egin ahal izango dira:

1. Kirol klubek, elkarteek edo federazioek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, egoitza elektronikoaren bidez eskura daitekeen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-deportistas-promesa>). Horretarako, aldez aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

2. Etorkizun handiko kirolariak edo adin txikiko kirolarien guraso edo legezko ordezkariak Kultura eta Kirol diputatuari zuzendutako eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte, modu haue-takoren batean:

– Telematikoki, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-deportistas-promesa>). Horretarako, aldez aurretik, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

– Aurrez aurre: erregistro hauetako batzuetan:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

– Jaiotze urtea: Arabako etorkizun handiko kirolari aitortpena jaso ahal izango dute 1999 eta 2007 urteen artean jaiotako hautagaiek.

– Merituak izateko epea: izendapen honetarako kontuan hartuko diren kirol-merezimenduak 2022ko urtarrilaren 27tik irailaren 30era bitartean lortutakoak izango dira.

Azken xedapen bakarra. Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ